

JOSE MARI ARTETXE

(G. B.)



EZAGUTU GENDUAN

Ondo ezagutu genduan, amar urteko artu-emonetan, Zeanuri'ko Jose Mari Artetxe benetako euskalzalea, benetako abertzalea.

Gorabera ta joan-etorri aundiak izan ebazan bere bizitzeak aurtengo urrillaren 14'an amaitu zan Esukalerriaren bazter eder aretan.

Baiña edestu dagigun laburkiro ta al danik zeatzen bere bizitza latz eta itxaropentsua.

GAZTAROA

Artetxe'ren gaztaroa, umetatik asita, latza izan zan, lanak eta ez-bearrak ondo eundua.

Ikastolara joateko adiñera eldu zanean, Zeberio'ra morroi joan-berra izan eban, zortzi urteko mutikoa zala. Ez eban ba lenengo ikasketak egiteko be erarik izan soldadutzara joan-aurrean.

Gizarteak beragan bete barik itzi eban oiñarriko utz-une ori, soldadutzan bete eban. Antxe ikasi eban, al izan eban neurrian, irakurten eta idazten, baita gero gudatean ain bearrezkoak izango ebazan izkillu-bideko trebetasunaren jakingarri batzuk be.

GUDATEAN

Ogei ta amaseigarren urtean, España'n Erkalaren (Errepublikaren) aurka eta Euzkadi'n emengo Jaurlaritzaren eta Erriaren aurka gudaldi gogorra sortu zanean, Jose Mari gudalburu (teniente) izendatu eben ARANA GOIRI GUDARI-TALDEAN eta bere burrukaldirik gogorrena Saibi-gaiñean izan zan. Antxe jo eban buruan esku-lerkai (bonba) batek eta zaurituta gaiso-etxera eroan eben.

ESPETXEAN

Gero millak euskaldunak izan eben zori bardiña izan eban eta bost urte luze igaro ebazan giltzapean.

Ez ziran beretzat alperrik galdutako urteak izan: Antxe ikasi eban Artetxe'k zurezko irudiak egiten.

Ez dira asko berak egindako irudiak, baiña bai ederrak eta trebetasun aundikoak. Beti Euskalerriko gaiak begira.

Ez dakit an ala lenago ala geroago, arria lantzen be ikasi eban eta argintzan egin eban guda-osteko urteetan bere lana.

BERTSOLARIA

Euskal-jakintzari eldu al eutsen aldetik eltzeko gogoaz, bertsolaritzan be egin ebazan bere ekiñaldiak eta txapelketa batzutura aurkeztu be bai.

Gero, zori txarrez, abotsa osooan galdu eban eta ezin jakin arlo onetan bere gaitasuna ta trebetasuna noraiño elduko zan.

ERRI-LANETAN

Guda osteko urteetan, argintzarako bere trebetasuna baliatzeko, Peru ta Saltzedo bere anaiak la-

gun ebazala, erri-lanetara sartu zan bizi-bizi. Iru anai oneik egin-dako lan batzuk gogoratzekotan, Arrieta'ko iturria ta Areatza/Billato'ko illerria gogoratu bear.

Martin Deuna'ren jai-inguruan pozik joaten giñan Arrieta'ra ango lagun zarrak agurtzera eta tokirik ba-egoan, aparitxua egitera.

GAISORIK

Orain amazpi urte eztarriko gaiso txarrak jo eban Artetxe. Ebaiketa arriskutsua egin bear izan eutsoen, baiña, zori onez, bizirik urten eban, naizta berba egiteko abotsa zearo galdu. Geroago abots-gaillutxu bat erosi eban eta orrelan errezago ulertzen jakon esan nai ebana.

EDATETXEAN

Zeanuri'n edatetxe bat eukan Artetxe'k bere emazte ta etxekoen laguntzaz. Ara joaten jakozan bere lagun zar eta barriak bera agurtzera eta biotz zabalaz artzen ebazan.

Ez da edatetxeko lana beti gozoa izaten, batez be berak eukan lako eragozpena, barbarik argi egin eziña, daukanarentzat, baiña al danean al dana eta aurrera egin bear.

SENDIAREN POZA

Artetxe'ren pozik aundiena, eguneroko poza, bere seme-alabak aurrera egiten ikustea zan eta seme-alaben urrengo illobatxoak izaten ebazan artu-emon gozatsuak. Ori bai ba-zala bizitzako goraberak emoten eutsoezan garraztasunak gozatzeko bidea, Bixenta Larrabide, bere emaztea lagun ebala.

OLAZAR'tar Martin'ek